




EAEko ekonomiaren termometroa 131,9ra igo da

EAEko ekonomiaren termometroa

Indizea




Otsailean, EAEko ekonomiaren termometroak pixka bat gora egin zuen berriro, eta 131,9 puntutan kokatu zen. Industriaren, zerbitzu-en eta enpleguaren bilakaera onak ibilbide hori justifikatzen du, nahiz eta Ukrainaren inbasioa laster adierazle ekonomikoetan nabaritzen hastea espero den.

Industriaren ekoizpena %7,0 handitu zen urtarrilean

EAEko industria ekoizpena

Indizea




Eustaten arabera, industriaren ekoizpena %7,0 hazi zen Euskadin urtarrilean, 2021eko hil beraren aldean. Horrela, ekoizpen maila asko hurbildu da 2019kora, hau da, urtarril batean jaso den maximora. Energiaren, ekipamendurako ondasunen eta kontsumo ondasunen ekoizpenaren indarra nabarmendu behar da.



Etxebizitzaren prezioa %2,1 igo zen 2021ean


EAEko etxebizitzaren prezioa
Indizea



2021. urtean, etxebizitzaren prezioa %2,1 igo zen Euskadin, aurreko urtearekin alderatuta. Laugarren hiruhilekoan, garestitzea %4,2ra arte bizkortu zen. Zazpi urtez jarraian gora egin dute prezioek. Hala eta guztiz ere, prezioak 2008-2009 aldiaren higiezinaren burbuila lehertu aurretik erregistratutakoen oso azpitik daude oraindik.

EAEko KPI indizea %7,4ra iritsi zen otsailean

Euskadiko KPI
Indizea



Otsailean, kontsumoko produktu-en prezioak %7,4 igo ziren aurreko urtearekin alderatuta. Produktu energetikoak (argindarra eta erre-gaiak) garestitu ziren gehien, baina zenbait elikagaik ere gora egin zuten, hala nola lekaleek, barazkiek, ogiak eta zerealek.